

KOORDINATZEKO ETA JARDUTEKO PROTOKOLOA



sexu-esplotaziorako
salerosketaren biktima
diren **Emakume eta
Neskatoen** kasuan

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

Instituto Navarro para la Igualdad
Nafarroako Berdintasunerako Institutua

KOORDINATZEKO
ETA JARDUTEKO
PROTOKOLOA



sexu-esplotaziorako
salerosketaren biktima
diren **Emakume eta**
Neskatoen kasuan

PROTOKOLOAREN ERREDAKTOREAK

Nafarroako Berdintasunerako Institutua

AHOLKULARITZA TEKNIKOAK

Rosario Carracedo Bullido
Maria José Barahona Gomáriz

DOKUMENTUA OSATZEN PARTE HARTU DUTENAK

Honako dokumentu hau osatzen parte hartu duten pertsonak, Emakumeen Sexu Esplotaziorako Salerosketaren aurkako Nafarroako Foroaren eta lantalde teknikoaren kideak dira:

- Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentua
- Eskubide Sozialetarako Departamentua
- Osasun Departamentua
- Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barne eta Justiziko Departamentua
- Gobernuaren Ordezkaritza
- Foruzaingoa
- Polizia Nazionala
- Guardia Zibila
- Iruñeko Udaltzaingoa
- Erakundeak:
 - Itxaropen Gune
 - Nafarroako Munduko Medikuak
 - Villa Teresita erakundea
 - Pertsonen salerosketaren aurkako ekintza
 - Abiatze
 - Cáritas

EMAKUMEEN SEXU ESPLATAZIORAKO SALEROSKETAREN AURKAKO NAFARROAKO FOROAREN ONAR-PENA, 2016ko abenduaren 2an.

1. SARRERA	6
2. LEGE - ESPARRUA	7
2.1. Nazioarteko legedia	7
2.2. Legedi Nazionala	9
2.3. Nafarroako Foru-legedia	15
3. ANTOLAKETA - ETA ESKUMEN - ESPARRUA	17
4. PRINTZIPIO GIDARIAK	18
5. LAGUNTZA INTEGRALA	21
5.1. Salerosketa-egoeran dauden emakume eta neskatoak hauteman eta identifikatzea	21
5.2. Informazio - prozesua	23
5.3. Biktimen beharrianak	24
5.4. Laguntza integrala	25
6. BIKTIMEN ARRETARAKO KOORDINAZIOA	28
7. 1. ERANSKINA. SALEROSKETAREN ADIERAZLEAK	30
8. BIBLIOGRAFIA	35



SARRERA

000. urtean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Pertsonen salerosketa, beziki emakume eta haurrena, prebenitu, zigortu eta zehatzeko Protokoloa onetsi zuen. Protokolo horrek honela definitzen du pertsonen salerosketa 3. artikularen (a) letran: pertsonak harrapatzea, garraiatzea, lekualdatzea, ostatu ematea edo hartzea, beste pertsona baten gain agintzen duen norbaiten adostasuna lortzeko mehatxua edo indarra edo indarkeriazko beste zernahi forma, bahiketa, iruzurra, engainua, nagusikeria, ahultasun-egoera bat edo ordainak nahiz onurak hartzea edo jasotzea erabiltzen baldin bada, betiere esplotatzeko asmoz. Esplotazio horrek, gutxienez, barne hartuko ditu inoren prostituzioaren esplotazioa edo sexu-esplotazioko beste forma batzuk, nahitaezko lan edo zerbitzuak, esklabotza edo esklabotzaren antzeko praktikak, morrontza edo organoak ateratzea.

Diputatuen Kongresuak 2008ko abenduaren 12an onartu zuen Espainiako Gobernuaren Gizakiak Sexu Esplotaziorako Salerosketaen aurka Borrokatzeko Plan Integrala (aurrerantzean, GSESAB Plana).

2011n, Giza Salerosketaren Biktimak Babesteko Esparru Protokoloa onartu zen, Justizia Ministerioak, Barne Ministerioak, Lan eta Immigrazio Ministerioak, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Fiskaltzak 2011ko urriaren 28an adostutako akordio baten bidez.

Protokoloan, honako alderdiak biltzen dira: salerosketaren biktima

posible batek hautematen dutenetik zer fase igarotzen dituen azaltzen da, fase bakoitzean zer jarduketak egin behar diren zehazten da eta zer administrazioek esku hartzen duen identifikatzen da; gainera, horien artean koordinatzeko mekanismoak zehazten dira, baita biktimen laguntzan esperientzia egiaztatua duten bestelako erakundeekiko harremana ere.

2015eko irailaren 18an, Ministro Kontseiluak Emakumeak eta Neskatok Sexu Esplotaziorako Salerosketaen aurka Borrokatzeko 2015-2018rako Plan Integrala onartu zuen. Plan horrek nazioarteko eta Estatuko arau-esparrua eguneratzen du, giza salerosketa zigor-arloan definitzen du, hura osatzen duten elementuak zehazten ditu eta politika eraginkor bat garatzeko oinarriko alderdiak jasotzen ditu, baita ekintza integral bat osatzen duten neurriak ere.

Planaren arabera, autonomia-erkidegoek neurriak eta ekintzak diseinatu eta gauzatzeko ardura dute.

Nafarroako Salerosketa Protokoloak sexu jakin bati (emakumea) eta salerosketa mota jakin bati (sexu-esplotaziora zuzendua) erantzuten die. Korrelazio hori Estatuko Planean eta apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean (emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko, sexu-esplotaziorako salerosketen biktimak espresuki babesten ditu) oinarrituta dago.

EGE-ESPARRUA

2 2.1. NAZIAORTEKO LEGEDIA

Nazio Batuen Erakundeak, 2000. urtean, Pertsonen Salerosketa, Bereziki Emakume eta Haurrena, Prebenitu, Zigortu eta Zehatzeko Protokoloa, **Palermoko Protokoloa** deiturikoa, onartu zuen. Protokolo horrek Antolatutako Delitugintza Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa osatzen eta interpretatzen du eta gizakien salerosketaren aurka borrokatzeko oinarrizko lege-tresna nazioarteko eta unibertsal bat da.

Palermoko Protokoloaren hitzaurrean azaltzen denez, pertsonen salerosketari aurre egiteko, bereziki emakume eta haurrenari, behar-beharrezkoa da *«ikuspegi zabala eta nazioartekoa izatea, jatorrizko, igarobideko nahiz helmugako herrialdeetan; eta ikuspegi horrek bildu behar ditu salerosketa hori prebenitzeko neurriak, trafikatzailak zehatzekoak eta salerosketa horren biktimak babestekoak, batez ere, nazioarte-*

mailan biktimei aitortutako giza eskubideak babesten dituztenak». Halaber, fenomeno unibertsalki tratatzeko eta araugintza bateratzeko instrumentu bat behar da; izan ere, *«oraindik ere, ez dago halako instrumentu unibertsalik, pertsonen salerosketaren arlo guztiak barne hartzen dituenik»*. Nazioarteko testu horretan, estatuen ekintzaren hiru alor oinarrizko aipatzen dira:

- Salerosketa prebenitzea eta horri aurre egitea. Horretarako, gizakien salerosketaren definizio bat txertatzen du, baita estatuei zuzendutako agindu bat ere: pertsonen salerosketaren definizioan deskribatutako jokabideak delitu gisa tipifikatzea.
- Biktimentzako babesa eta laguntza. Giza eskubideak errespetatu eman beharko da.
- Estatuen arteko nazioarteko lankidetzak. Horrek prebentzioaren, elkarlanaren, informazio-trukeen eta agintari eta eragileen prestakuntzaren esparruan, besteak beste, askotariko neurriak martxan jartzea dakar.

Protokoloak giza salerosketaren delituaren definizioa barne hartzen du. Protokoloa aplikatzeko, estatuen barne-legedietan txertatu behar da, estatuen eskumenak eta lurralde-mugak gainditzen dituen nazioz gaindiko fenomeno bati aurre egiteko erantzun uniforme eta ahal den heinean unibertsala edukitzeko helburuarekin edo asmoarekin.

Protokoloan jasotako giza salerosketaren kontzeptuak hainbat elementu metatzen ditu:

- Pertsonak harrapatzea, lekualdatzea edo hartzea.

- Pertsonak hertsatzeko neurriak erabiltzea, hala nola, indarkeria, beldurraraztea, abusua edo engainua; nahikoa da horietako bat erabiltzea, baina bat baino gehiago batera erabili ohi dira.
- Besteren prostituzioa esplotatzeko edo beste sexu-esplotazio forma batzuk erabiltzeko asmoa edo helburua; horiez gain, kontzeptuak beste esplotazio-xede batzuk ere barne hartzen ditu (esaterako, organoak ateratzea, morrontza, bortxazko lanak eta esklabotza).

Salerosketa-delituaren elementu kritikoa neurri hertsagarriak erabiltzea da. Horiek prozesu osoan edota pertsona harrapatzeko, lekualdatzeko edo hartzeko unean ezar daitezke. Gerta daiteke biktima identifikatzean ezartzea edo identifikazioa gertatzen denean ezartzeari uztea. Zeren eta, biktimaren eta haren eskubideen ikuspegitik, salerosketaren biktima izan direla edo direla da garrantzitsuena.

Sexu-esplotaziorako salerosketa delitua nazioz gaindikoa izan daiteke. Horixe gertatzen da estatu batean baino gehiagoan egiten denean, edo estatu batean egin arren prestaketaren, zuzendaritzaren edo kontrolaren parte bat beste estatu batean egiten denean, edo estatu batean baino gehiagoan delituzko jarduerak egiten dituen talde antolatatu batek parte hartzen duenean. Baina barnekoa ere izan daiteke, mugarik gurutzatu gabe edo antolatutako egiturarik izan gabe. Beraz, nazioko nahiz nazioarteko pertsoneri, haurrei, eragin diezaieke.

Sexu-esplotaziorako salerosketaren delitua emakumeen eta haurren sexu-esplotazio motarik muturrekoena da, baita txosten nazional eta nazioartekoetan gehien dokumentatutakoa ere.

Palermoko Protokoloarekin 2000. urtean hasitako lanarekin jarraituz, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Pertsonen Salerosketaren aurka Borrokatzeko Nazio Batuen Munduko Ekintza Plana (64/293 Ebazpena) onartu zuen 2010ean.

Europar ere egin dira lege-ekimenak alor horretan, bai Europako Kontseiluaren egoitzan bai Europar Batasunean.

Nabarmenezkoa da Europako Kontseiluak Gizakien Salerosketaren aurkako Nazioarteko Ituna (aurrerantzean, Varsoviako Ituna) onartu zuela 2005eko maiatzaren 16an. Itun hori, oinarrian, Palermoko Protokoloarekin bat dator salerosketen definizioari dagokionez, baina hartatik desberdintzen da, Europako estatuak biktimen giza eskubideak babesteko hartu duten konpromisoa azpimarratzen duen nazioarteko tresna bat delako. Babes-betebeharren aginduzko katalogo bat jaso eta bere artikuluetan garatzen du. Horrenbestez, Palermoko Protokolotik aldentzen da, hartan biktimen giza eskubideekiko konpromisoa modu ahulean garatzen baitzen eta, zenbaitetan, gomendio edo adierazpen hutsak besterik ez zituen hizkera bat erabiliz.

«**Varsoviako Itunean** estatuei ezarritako betebeharrak hitz argiak eta zehatzak erabiliz zuzendutako eta adierazitako arau-aginduak dira, artikuluetan erabilitako hizkerak ondorioztatzen ematen duen moduan: «Alderdiek politikak eta programak ezarriko eta/edo sustatuko dituzte...», «Alderdiek pertsonen eskubideetan oinarritutako ikuspegi bultzatuko dute...», «Alderdiek biktimak identifikatzeko beharrezko neurriak, legezkoak edo bestelakoak, hartuko dituzte», «Alderdiek biktimen bizitza pribatua eta identitatea babestuko dituzte...», «Alderdiek biktimei laguntzeko beharrezko neurriak, legegileak edo bestelakoak, hartuko dituzte...», «Alderdiek biktimei prozesu judizialei eta administratiboari buruzko informazioa eskuratu ahal izatea bermatuko diete...».

Varsoviako Itunak ekintza politiko eta sozialaren ardatz nagusiak adierazten ditu, eta ekintza hori kasu eta ekintza guztietan gauzatu behar da, diskriminaziorik ezaren irizpideari jarraikiz, diskriminazioaren oinarria edozein dela ere: sexua, arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste edozein iritzi, nazio- edo gizarte-jatorria, gutxiengo nazional batekoa izatea, egoera ekonomikoa, jatorria edo beste edozein egoera.

Varsoviako Itunaren jarraibideek ardatz hauek dituzte:

- ◀ Prebentzioa
- ◀ Biktimen giza eskubideak babestea eta sustatzea
- ◀ Justizia penaleko sistemaren efizientzia eta eraginkortasuna
- ◀ Hitzarmenaren aplikazioaren ebaluazioa eta jarraipena

2002. urtetik, EBren lege-ekimenak arlo honetan sakontzen joan dira, giza salerosketaren aurkako borroka bere lehentasuna baita, zuzentarau hauek agerian uzten duten moduan: 2011/36/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2011ko apirilaren 5ekoa, giza salerosketaren aurkako prebentziari eta borrokari eta biktimak babesteari buruzkoa (Kontseiluaren 2002/629/JAI Esparru Erabakia ordezkatzeko du), zeina interesgarria baita, delituen biktimak babesteko gidalerro oinarritzko eta komun batzuk jasotzen dituelako, eta estatu kide guztientzako ikuspegi orokor bat ezartzen, salerosketa-delitua guztietan modu berean definitu dadin; 2012/29/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko urriaren 25ekoa, delituen biktimen eskubideei eta haiek babestu eta laguntzeari buruzko gutxieneko arau batzuk ezartzen dituena (Kontseiluaren 2001/220/JBG Esparru Erabakia ordezkatzeko du).

Gaur egun, **Gizakien Salerosketa Deuseztatzeko Europar Batasunaren Estrategia (2012-2016)** da Europako Batzordeak 2011/36/EB Zuzentzarauan jasotako aurreikuspenak aplikatzen lagunduko duten neurri zehatzak gauzatzeko duen tresna. Horrek erregulazio horri balio erantsia ematen dio eta gobernuek, nazioarteko erakundeek eta gizarte zibilak Europar Batasunean eta beste herrialde batzuetan egingdako lana osatzen du.

Estrategian Europar Batasunak giza salerosketaren gaiari heltzeko aintzat hartu behar dituen bost lehentasun zehazten dira:

a) Giza salerosketaren biktimak hautematea, babestea eta horiei laguntzea.

b) Giza salerosketaren prebentzioa indartzea.

c) Salerosleak modu aktiboagoan jazartzea.

d) Interesdun nagusien arteko koordinazioa eta elkarlana eta politiken koherentzia hobetzea.

e) Gizakiak salerosteko modu guztiekin lotutako joera berriak hobeto ezagutzea eta horiei modu eraginkorrean erantzutea.

Hain zuzen, bost lehentasun horietan oinarritu da Espainiako Emakumeak eta Neskatoak Sexu Esplotaziorako Salerostearen aurka Borrokatzeko 2015-2018rako Plan Integralaren egitura.

2.2. LEGEDI NAZIONALA

Gizakiak Sexu Esplotaziorako Salerostearen aurka Borrokatzeko lehen Plan Integrala, Espainiako Gobernuak 2008ko abenduaren 12an onartua, nazio-mailan sexu-esplotaziorako salerosketaren aurka borrokatzeko lehen tresna integrala bihurtu zen. Planaren ekimene-tako bat Zigor Kodea aldatu eta gizakien salerosketaren delitua txertatzea izan zen.

Ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoak, Zigor Kodea aldatzen duenak, salerosketa-delitua txertatu zuen eta 2011n jarri zen indarrean, 177 bis artikulua gehituta. Artikulu horrek termino hauetan tipifikatzen du salerosketa-delitua:

“1. Bost urtetik zortzi urtearteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, gizakien salerosketaren errudun gisa, nahiz Espainiako lurraldean, nahiz Espainia iraganbide zein helmuga izanik, indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun- zein beharrian-egoeraz, nahiz biktimaren, hori nazionala edo atzerritarra izan, ahuleziaz abusatuz, biktima antzeman, garraiatu, lekualdatu, hartu, harrera egin edo ostatu ematen diotari ondorengo edozein helbururekin:

a) Bortxazko lanak edo zerbitzuak, esklabotza edo esklabotzaren, mira-

betzaren edo eskaletasunaren antzeko praktikak.

b) Sexu-ustiaketa, pornografia barne.

c) Gorputz-organoak ateratzea.

2. *Aurreko paragrafoan aipaturiko bideak erabili ez arren, gizakien salerosketatzat hartuko da aurreko paragrafoan adierazitako edozein egintza, horiek adingabeei egiten zaizkienean ustiaketa helburuekin.*

3. *Gizakien salerosketaren biktima baten adostasunak ez du ondoriorik izango artikulu honen lehenengo paragrafoan aipatu bideetariko bat baliatu denean».*

Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoak (2/2009 Lege Organikoak eta 2011ko uztailaren 27ko 10/2011 Lege Organikoak aldatzen dute), salerosketaren biktimak babesteko esparrua finkatzen du eta 59 BIS artikuluan arautzen du, termino hauetan:

1. Eskudundutako agintariak beharrezko neurriak hartuko dituzte pertsonen salerosketaren biktimak identifikatzeko, Europako Kontseiluaren gizakien salerosketaren aurkako borrokari buruzko itunaren (2005eko maiatzaren 16koa) 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Eskudundutako administrazio-organoek uste badute zentzuzko arrazoiak daudela legez kanpoko egoeran dagoen atzerritar bat salerosketaren biktima izan dela pentsatzeko, artikulu honetan jasotako aurreikuspenen berri emango diote interesdunari, eta suspertzeko eta gogoeta egiteko aldi bat emateari buruzko proposamen bat aurkeztuko diote eskudundutako agintaritzari, ebazpen bat eman dezan, araudian jasotako prozeduraren arabera.

Suspertzeko eta gogoeta egiteko aldi horrek hogeita hamar egun iraungo du gutxienez, eta nahikoa izan beharko du biktimak erabaki ahal izateko ea agintaritzei delitua ikertzen eta, hala badagokio, zigor-prozeduran lagundu nahi dien. Ondoren, **90 egunera** hedatu zen hausnartzeko aldia. Ez biktimak identifikatzeko fasean ez suspertzeko

eta gogoeta egiteko aldiak ez da abiaraziko zehapen-espediterik 53.1.a) artikulua urratzeagatik eta, abian jarri bada, eten egingo da zehapen-espeditentea edo, hala badagokio, erabakitako kanporaketaren edo itzularaztearen gauzapena. Era berean, suspertzeko eta gogoeta egiteko aldiak, aldi baterako egonaldia baimenduko zaio eta eskudundutako administrazioek biktimaren eta haren seme-alaba adingabeen edo desgaitasuna dutenen biziraupena zainduko dute, baita, hala behar bada, haien segurtasun eta babesaren ere, Espainian badaude identifikazioaren unean. Artikulu honen 4. zenbakian itzulera lagunduekin edo egoitza-baimenarekin eta, hala badagokio, lanarekin lotuta jasota dauden aurreikuspenek barne hartuko dituzte orobat biktimaren hamasei urtetik gorako seme-alabak ere, ohiz kanpoko inguruabarrak direla-eta. Hausnartzeko aldia amaitutakoan, eskudundutako administrazio publikoek biktimaren egoera pertsonala ebaluatuko dute, aipatutako epea zabaltzeko aukera aztertuko.

Salbuespen gisa, eskudundutako Administrazio Publikoak Espainian dauden beste pertsona batzuen segurtasuna eta babesaren ere zainduko du, biktimak familiako edo bestelako loturak baditu haiekin, eta egiaztatzen bada trafikatzailen aurrean izango luketen babesgabatasun-egoera gainditu ezineko oztopoa litzatekeela biktimak kooperazioa onartzeko.

3. Suspertzeko eta hausnartzeko aldiak ukatu edo baliogabetu daiteke, ordena publikoa dela kausa edo biktima-izaera bidegabeki argudiatu dela jakiten bada. Ukapena edo baliogabetzea arrazoitu egin beharko dira eta errekurtsua jarri ahalko zaie, azaroaren 26ko 30/1992 Legean (Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearena) xedatutakoaren arabera.

4. Eskudundutako agintaritzak administrazio-erantzukizunez salbuetsi dezakete biktima, eta ahalbidetu ahal izango zaio, berak akeratutakoaren arabera, bere jatorrizko herrialdera bueltatzea edo Espainian bizitzeko eta lan egiteko baimena jasotzea ohiz kanpoko zirkunstantziengatik, baldin eta beharrezkotzat jotzen bada, ikertzeko edo zigor-ekintzetarako laguntza eman dezan edo bere egoera pertso-

nala aintzat hartuta, eta orobat gizarteratzeko erraztasunak eman ahal izango zaizkio, lege honetan xedatutakoaren arabera. Horrez gain, ohiz kanpoko zirkunstantzien ondoriozko egoitza- eta lan-baimena emateko prozedura ebatzi artean, behin-behineko egoitza- eta lan-baimena eman ahal izango zaio, araudian zehaztutako baldintzetan.

Aurreko zenbakian aipatutako baimenen izapidean, biktima dokumentu batzuk aurkeztetik salbuetsi daiteke, dokumentu horiek bera arriskuan jartzen badute.

5. Artikulu honetako aurreikuspenak berdin aplikatzeko izango dira atzerritar adingabeen kasuan ere, haien adina eta heldutasuna aintzat hartuta eta, nolana ere, adingabearen interes gorenaren lehentasuna.

6. Erregelamenduz, giza salerosketaren biktimei harrera egitea eta babestea helburu duten irabazi-asmorik gabeko gobernu kanpoko erakundeen lankidetzarako baldintzak garatuko dira.

Apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duenak, arestian azaldutako 59 bis artikulua erregelamenduzko garapena jasotzen du, eta hausnarketako, informazioko, deribazioko eta, hala badagokio, aldi baterako egoitza-baimena emateko aldiei buruzko auziak erregulatzen ditu, egoitza-baimenik ez duten eta itzulera lagundurako eskubidea izateko baldintzak betetzen ez dituzten giza salerosketaren biktimentzat.

Era berean, **142. artikulua** ere hausnartzeko aldia erregulatzen du, eta **143. artikulua** administrazio-erantzukizunetik salbuestea, honako termino hauetan:

142. artikulua. Suspertzeko eta hausnartzeko aldia

1. Identifikazioa atzerritarren unitateek egiten dutenean, suspertzeko eta hausnartzeko aldia emateari buruzko dagokion proposamena helaraziko diote identifikazioa egin den probintziako Gobernuaren Ordezkaritzari edo Ordezkariordeztari, berrogeita zortzi orduko epean gehienez ere, aurrez biktimaren adostasuna lortuta. Atzerritarra giza

salerosketaren biktima potentziala dela pentsatzeko zentzuzko arrazoiak daudela uste bada, proposamena aldekoa izango da, eta, kasu horretan, hausnartzeko aldiaren iraupena adieraziko du. Gutxienez hogeita hamar eguneko izango da eta, edozein kasutan, atzerritarra suspertu ahal izateko eta agintaritzaren eskudunei delitua ikertzen edo, hala badagokio, zigor-prozeduran lagundu nahi dien erabaki ahal izateko behar adinakoa.

Proposamenarekin batera, honako hauek bidaliko dira: espediente osoa, haren egoera administratibo eta pertsonalari buruzko polizia-agintaritzaren txostena, baita prozeduran esku hartzen duten beste batzuen ere eta, bereziki, salerosketaren biktimen eskubideak sustatzera eta babestera emandako erakundeetatik datozenak.

2. Beste polizia-agintaritzaren batzuek identifikatu badute biktima, horiek identifikazioa egin den guneko atzerritarren unitateari txosten arrazoi bat bidaliko diote lehenbailehen, pertsona hori gizakien salerosketaren biktima izan dela pentsatzeko arrazoizko zantzuen existentziari buruzkoa, hausnartzeko aldia ezartzeko eskaerarekin eta hura emateari buruz ebazteko interesgarria den informazio eta dokumentazio guztiarekin batera.

Eskumena duen atzerritarren unitateak artikulu honetako 1. zenbakian aurreikusitakoaren arabera jardungo du.

3. Eskumena duen ordezkari edo ordezkariordeak gehienez ere bost eguneko epean ebatziko du suspertzeko eta hausnartzeko aldia emateko proposamenaren eta haren iraupenaren inguruan; epe hori igarotakoan, onartutzat emango da aldia eta proposamenaren aipatutako iraupena izango du. Hala ere, Gobernuaren Ordezkaritzari edo Ordezkariordeztari aldeko txostena helarazten zaion unean biktima Atzerritarren Barneratzeko Zentro batean badago, ebazpena hogeita lau orduko epean eman beharko da.

Zenbaki honetan finkatutako epeak proposamena eskumena duen Gobernuaren Ordezkaritzan edo Ordezkariordeztan jasotzen den egunetik hasiko dira zenbatzen.

4. Gobernuaren Ordezkaritzak edo Ordezkariordeak berehala eta bide azkarrenaren bitartez jakinaraziko dio suspertzeko eta hausnartzeko aldiari buruzko ebazpena interesdunari, zuzenean edo emateko proposamena egin duen polizia-agintaritzaren bitartez. Edozein kasutan, azken horri ere emango zaio ebazpenaren berri. Polizia-agintaritzari ez bada ikerketa abiarazi zuena, hari ere jakinaraziko zaio ebazpena, baita biktima zaintzapean duenari ere.

5. Aldekoa bada, ebazpenak berariaz aipatuko ditu, beste alderdi batzuen artean, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 53.1.a) artikuluan aurreikusitako urraketarekin lotuta abiarazitako zehapen-espedita edo erabakitako kanporatze- edo itzularazte-neurriaren gauzapean aldi baterako eteteko erabakia. Era berean, eskudundutako agintaritzari atzerritarra aske uzteko proposamena egitea ekarriko du, hura atzerritarrak barneratzeko zentro batean sartzeko kautelazko neurria ezarri bada.

Beste gobernu-ordezkarik edo -ordezkariorde batek badu zehapen-prozedura edo kanporatze- edo itzularazte-neurria eteteko eskumena, suspertzeko eta hausnartzeko aldia emateari buruzko ebazpena jakinaraziko zaio, aurreko zenbakian zehaztutakoaren arabera bidezko diren ondorioetarako.

6. Suspertzeko eta hausnartzeko aldia ematen duen kasuan kasuko ebazpenak Espainiako lurraldean egoteko baimena emango dio atzerritarrari, zehaztu den iraunaldirako.

7. Suspertzeko eta hausnartzeko aldiaren, eskudundutako polizia-agintaritzak, 140. artikuluan aurreikusitako protokoloan zehaztutako irizpideei jarraikiz, pertsonaren segurtasuna eta babesa zainduko ditu. Halaber, pertsona horrek gizarte-laguntzaren arloko eskumena duten autonomia- edo udal-agintaritzetara bideratua izateko aukeraren berri izatea bermatuko du.

143. artikulua. Erantzukizunetik salbuestea.

1. Giza salerosketaren biktima agintaritzari bati delitu bat ikertzen edo

zigor-prozedura bat bideratzen laguntzen ari bada, agintaritzari horrek biktima urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 53.1.a) artikulua urratzearekin lotutako erantzukizunetik salbuesteko proposamena luzatu ahal izango dio eskudundutako ordezkari edo ordezkariordeari.

Aurrekoa alde batera utzita, biktimaren egoera pertsonala kontuan hartuta, gobernu-ordezkariek edo -ordezkariordeak ofizioz har dezake erantzukizunetik salbuesteko erabakia.

2. Erantzukizunetik ez salbuesteko erabakia hartzen bada, zehapen-prozeduraren edo kanporatze- edo itzularazte-neurriaren gauzapean etenaldia bertan behera geratuko da.

Etendako zehapen-prozedura edo kanporatze- edo itzularazte-neurria beste gobernu-ordezkarik edo -ordezkariorde baten eskumena bada, atzerritarra erantzukizunetik salbuesteari buruz erabakitakoaren berri emango zaio, prozedura artxibatu, jarraitu edo dekretatutako kanporatze- edo itzularazte-neurria baliogabetzeko.

3. Aurreko zenbakian aurreikusitakoak gorabehera, zehapen-prozeduraren ebazpenaren baldintzapean egongo da prozeduraren jarraipena, halaber, atzerritarrak ohiz kanpoko inguruabarrak direla-eta egoitza-baimena eskatzeko prozedura abiarazten badu, aldi berean 4/2000 Lege Organikoaren 59.bis artikuluan aurreikusitako kasuaz bestelako egoera bat gertatzen dela alegatuz.

Bestalde, salerosketaren helburuekin lotuta, Zigor Kodearen azken erreformaren kariaz –**martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoa, azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa**, Zigor Kodearena aldatzen duena– egindako bi berritasun nabarmendu behar dira:

Zigor Kodearen 172 bis artikuluan ezkontza behartuaren delitu berria tipifikatzea –apirilaren 5eko 2011/36/EB Zuzentarauak berak adierazten duenez, pertsonak esplotatzeko modutzat har daiteke–.

187. artikulua aldatzea, besteren prostituzioa esplotatuz irabazia ateratzen duena eraginkortasun handiagoz jazartzeko. Idazketa berriaren arabera, besteren prostituzioari irabazia ateratzen diona zehatza ber-

matuta dago, baldin eta esplotazio-egoera bat dagoela agerian uzten duten jokabide jakin batzuen bitartez gauzatzen bada.

Laguntza juridikoari dagokionez, **otsailaren 22ko 3/2013 Errege Lege Dekretu**, (justizia-administrazioaren eremuan tasen araubidea eta doako laguntza juridikoaren sistema aldatzen dituen) onarpena nabarmendu behar da; izan ere, giza salerosketen biktimen babesaren eta laguntzaren eremuan aurrerabide garrantzitsua ekarri du, genero-indarkeriaren eta salerosketaren biktimentzako doako laguntza juridikoa eskuratzeko eskubidea aitortzen baitie, biktima izatearen ondoriozko prozesu judizial eta administrazio guztietan, eskura dituzten baliabideak edozein direla ere. Eskubide hori giza salerosketaren biktima guztiei aitortzen zaie, edozein dutela ere jatorria edo administrazio-egoera, urtarrilaren 11ko 4/2000 LOren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera. Lege horrek parte hartzen duten prozesuetan doako laguntza juridikoa eskuratzeko eskubidea aitortzen die Espainian dauden atzerritarrei, Espainiako herritarren baldintza berberetan aitortu ere.

Azkenik, **apirilaren 27ko 4/2015 Legea (Delituaren Biktimaren Estatutuarena)** delituen biktima guztien eskubide prozesal eta prozesuz kanpokoen katalogo orokor bat da, biktimei eta haien senideei erantzun juridiko eta soziala ematen die, eta, horrez gain, biktima kalteberenentzat –esaterako, salerosketaren biktimak eta adingabeak– berariazko arreta aurreikusten du.

Zehazki, biktimen babes-premia bereziak hautemateko banakako ebaluazioan, giza salerosketaren biktimen babes-premiak aintzat hartuko dira, beraien babes-premia bereziak zehazteko, baita zer neurri hartu behar diren ere. Horrek esan nahi du babes-neurri espezifikoak eskuratu ahal izango dituztela, instrukzio- eta auzipetze-faseetan bigarrenez biktima izan ez daitezen.

Giza salerosketaren biktimen babes-mekanismoak hobetzeko asmoz ere, **uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak (haur eta nerabeen babes-sistema aldatzekoa)** eta **uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak (haur eta nerabeen**

babes-sistema aldatzekoa) genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabentzako arreta eta babesaren hobetzen dute, baita emakumearen aurkako beste indarkeriaren molde batzuen biktima adingabeentzako ere.

Zehazki, nabarmentzekoa da lehen aldiz sartu dela, botere publikoek adingabeekin lotuta gauzatu beharreko jarduketara gidatzen duten printzipioen artean, haiek indarkeria modu guztien aurka babestea, giza salerosketa barne hartuta.

Era berean, lehen aldiz, botere publikoek askotariko indarkeriekin lotuta zer jarduketa gauzatu behar dituzten zehaztu da: haurren eta nerabeen aurkako edozein indarkeria moduren aurrean sentsibilizatu, prebenitu, hauteman, jakinarazi, lagundu eta babestu, administrazio, erakunde lankide eta zerbitzu eskudundu publiko eta pribatu guztien arteko koordinazioa eta lankidetzara ziurtatuko duten prozeduren bidez, modu integrean jardutea bermatzeko.

Horrez gainera, legeok Espainiako ordenamendu juridikoak giza salerosketaren biktimei eskaintzen dien babesaren hobetzen dute, adina konstante hartu gabe, alderdi hauetan:

Giza salerosketaren biktimak kontratatzen dituzten enpresentzako hoberiak: **abenduaren 29ko 43/2006 Legea** (hazkundera eta enplegua hobetzeko) aldatzen du, salbuespeneko inguruabarrak direla-eta egoitza- eta lan-baimena eskuratu dituzten biktima identifikatuak kontratatzen dituzten enplegatzaileek, kontratua egiten duten egunetik, Gizarte Segurantzarekiko enpresa-kuotan hileroko hoberi bat lortzeko eskubidea izan dezaten, edo, hala badagokio, haren baliokidea den eguneko hoberi bat lortzeko, kontratatutako langile bakoitzeko; zehazki, hileroko 125 euroko hoberia (1.500 euro/urte), bi urtez.

Pertsona horiekin aldi baterako kontratuak sinatzen badituzte, Gizarte Segurantzarekiko enpresa-kuotan hileroko hoberi bat lortzeko eskubidea edukiko dute edo, hala badagokio, haren baliokidea den eguneko hoberi bat, kontratatutako langile bakoitzeko; zehazki, hileroko 50 euroko hoberia (600 euro/urte), kontratuaren indarraldi osoan.

Aipatutako arau-erreformekin batera, delituaren (penala) jazarpenerekin eta biktima guztiek laguntza- eta babes-baliabideak eskuratzearekin lotuta, giza salerosketa arian-arian beste arau batzuetan txertatu da. Horrek Espainiako legegintzaren egoera aldatu du, nazioartean hartu diren konpromisoetara egokitzeko eta biktimei estaldura handiena emateko. Ildo horretan, doako laguntza juridikoari buruzko araudia ez ezik, arau hauek ere aipagarriak dira:

Nazioarteko babesaren arloan, **urriaren 30eko 12/2009 Legeak** (asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituena), nazioarteko babesa lortzeko bide ematen duten arrazoen artean, generoan oinarritutako jazarpenera sartzen du. 46. artikuluan, giza salerosketa nazioarteko babesaren eskatzaile nahiz onuradunen kalteberatasun-egoera posibleen artean agertzen da, eta eskaera horiek egiten dituzten pertsonen tratamendu desberdindua eman beharra ezartzen du kasu horietarako.

Osasun-laguntzaren arloan, **uztailaren 26ko 576/2013 Errege Dekretua**, (Osasun Sistema Nazionaleko aseguratutako edo onuradun ez direnei osasun-laguntza emateko hitzarmen bereziaren oinarritzako betekizunak ezartzen dituena). Horrez gain, **abuztuaren 3ko 1192/2012 Errege Dekretua** (aseguratu eta onuradun izatea arautzen duena Estatuko Osasun Sistemaren bitartez eta funts publikoen kontura Espainian osasun-asistentzia jasotzeko) aldatu da.

- Bosgarren xedapen gehigarrian, suspertzeko eta hausnartzeko aldiaren dauden giza salerosketaren biktimeizako osasun-laguntzaren prestazioa arautzen du, honako termino hauetan: «Osasun-laguntza, Osasun Sistema Nazionaleko laguntza-zerbitzuen oinarritzako zorro komunean aurreikusitako hedaduran (zorrotan **maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 8. artikuluan** dago arautua)».
- Halaber, praktikan, giza salerosketaren biktimei identifikatzen direnetik osasun-laguntza emango zaiela bermatzeko, Osasun Idazkaritza Nagusiak interpretazio bera helarazi die au-

tonomia-erkidego guztiei, hartara «gizakien salerosketaren biktimeizat» har dadin edozein pertsona fisiko, dagokien polizia-agintaritzek identifikazio-prozesu bat egin ostean salerosgai izan direla pentsatzeko arrazoizko zantzuak badaude. Hori egiaztatzeko, giza salerosketaren biktimei posibleentzako informazio orokorreko akta erabiliko da.

Espainiako garapenerako lankidetzako politiken arloan, giza salerosketa eta sexu-esplotazioa emakume eta neskatuen aurkako diskriminazio-modu okerrenetakotzat hartu izan dira, genero-berdintasuna eta emakumeak ahalduz izanik aipatutako politika horren lehentasunetako bat. Hala jaso da **2013-2016 aldirako IV. Plan Zuzentzailean**, baita hura aplikatzeko neurri zehatzak proposatzen dituen **Espainiako Generoaren eta Garapenerako Lankidetzaren Estrategia** ere.

Azkenik, Emakumeak eta Neskatuak Sexu Esplotaziorako Salerosketaren aurka Borrokatzeko 2015-2018rako Plan Integralak, Ministro Kontseiluak 2015eko irailaren 18an onartuak, nazioarteko eta Estatuko arau-esparrua eguneratzen du, giza salerosketa penalki zigortzen du, hura osatzen duten elementuak seinatzen ditu eta emakumeak sexu-esplotaziorako salerosketa emakumeen aurkako indarkeriatzat hartzen du.

2.3. NAFARROAKO FORU-LEGEDIA

Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean Arreta eta Prebentzioa Eraginkortasunez Koordinatzeko Erakundearteko II. Akordioak (2010) berriaz aipatzen du emakumeen sexu-esplotaziorako salerosketa emakumeen aurkako indarkeriaren modalitate gisa.

Indarkeria mota hori **14/2015 Foru Legean, Emakumeen kontrako Indarkeriari Aurre egitekoan** jasotzen da:

«3. artikulua Emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa eta motak.

2.d) Emakumeen eta nesken salerosketa: emakumeak eta neskak erakarri, eraman, lekuz aldatu, hartu edo jasotzea, barne hartuta pertsona horien gaineko kontrola trukitzea edo eskualdatzea, mehatxuekin edo indarra edo bestelako hertsamen bideak erabiliz, bahituz, iruzur eginez, engainatuz, botere abusuaren bidez edo egoera ahul batez baliatuz, edo emakume edo nesken gaineko kontrola duen pertsonaren baimena lortzeko dirua edo onurak emanez edo jasoz, helburua delarik sexu-esplotazioa, laneko esplotazioa edo menpekotasunezko ezkontza.

II. KAPITULUA: Arretarako eta Oneratzeko Sareko baliabideen eta zerbitzuen katalogoa.

IV) Giza-salerosketaren biktimentzako arreta integrala.

39. artikulua. Emakume-salerosketaren biktimentzako arreta integrala

Emakume-salerosketaren biktimentzako arreta integralean sartuko dira, gutxienez ere, laguntza psikologikoa, arreta juridikoa, tratamendu medikoa eta hainbat neurri, biziraupena ziurtatzekoak eta aholkularitza nork bere hizkuntzan jasotzea bermatzekoak.

43.3 artikulua: Harrerarako eta aldi baterako ostatu segurua emateko sarea

3. Emakume-salerosketatik biziraun duten emakumeek segurtasun eta arreta behar bereziak dituztenez, segurtasuna eta oneratzeko ziurtatzeko moduko zentroetan emanen zaie arreta.

47. artikulua. Emakume-salerosketaren biktima izan direnentzako harrera zerbitzua

1. Nafarroako Foru Administrazioak harrerarako zerbitzu bat jarriko du, gutxienez, emakume-salerosketa egoeratik biziraun duten emakumeentzat, arreta soziala, juridikoa, lan arlokoa eta psikologikoa bermatuko diena.

2. Zerbitzuaz arduratuko den taldeak frogatu beharko du prestakuntza

eta esperientzia dauzkala emakumeen salerosketaren arloan lan egiteko, foru lege honen oinarri diren printzipioekin eta giza salerosketaren kontrako Europako Hitzarmenarekin bat.

63. artikulua. Laguntza juridiko espezializaturako eskubidea

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du emakumeen aurkako indarkeria motaren baten biktima diren emakume guztiek abokatu baten laguntza dutela salaketa jarri baino lehen eta prozedura judicial eta administratibo guztien iraunaldi osoan. Orobat, bermatuko du laguntza hori ematen duten profesionalak espezialistak izatea.

2. Eskubideak barne hartuko du akusazio-akzioa baliatzea izaera horretako delituengatik instruitzen diren prozedura guztietan, bai eta falta-judizioetan abokatu baten laguntza izatea ere. Eskubideak abokatu baten laguntza ere barne hartuko du, ezkontza edo izatezko bikotea haustearekin zerikusia duten prozesu zibiletan, eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremanen gaineko neurriak eta babes neurri zibilak ere bai.

3. Era berean, abokatu-laguntzaren barnean jasotako zeregina izanen dira delituaren ondorioz legeak aitortutako eskubideak Administrazio Publikoari erreklamatzeko prozedurak.

4. Bermatu egingen da abokatu beraren zuzendaritzapekoa izatea biktimaren defentsa juridikoa, jasandako indarkeria-egintzaren ondoriozko prozesu guztietan.

5. Biktima hil egin bada, oinordek izanen dute doako laguntza juridikorako eskubidea, kaltetuak diren aldetik, edo beraien legezko ordezkariak, ezgaituak bada.

6. Artikulu honen ondorioetarako, oinarritzko legerian doako justiziari buruz xedatutakoa hartuko da kontuan.»



ANTZOLAKETA-ETA ESKUMEN-ESPARRUA

3

PROTOKOLOAREN XEDEA

Protokolo honek hainbat xede ditu: sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izandako emakumeak eta neskatoak hauteman, identifikatu, zaindu eta babesteko jarraibideak ezartzea, prozesu horietan inplikaturako erakundeen arteko koordinazioa ahalbidetzea eta arlo honetan erantzukizunak dituzten administrazioen arteko harreman-mekanismoak definitzea, eta orobat, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izandako emakume eta neskatoei laguntzen esperientzia egiaztatua duten erakundeen arteko komunikazio eta lankidetzaren prozesuak zehaztea, bereziki, administrazio publikoek biktimei laguntza eta babesa emateko ezarritako programetan parte hartzen duten erakundeen artekoak.

INSTITUZIO ETA ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEAK ETA KONPROMISOAK

Protokolo hau sustatu eta bertan parte hartu duten instituzio eta erakundeak Emakumeen Sexu Esplotaziorako Salerosketaren aurkako Na-

farroako Foroan ordezkaturik daudenak dira, eta emakumeen aurkako indarkeriaren eta salerosketaren biktimak babestearekin eta arrete ematearekin lotutako hainbat jarduketa eremutan –publiko nahiz pribatuak– dihardute.

Protokoloa beren lan-eremuetan hedatzeko konpromisoa hartu dute guztiek, eta beren jarduketa protokolora egokitzea, emakumeak sexu-esplotaziorako salerosketaren aurkako borrokaren eta biktimei babesa eta laguntza ematearen esparruan, Nafarroako Foru Komunitatean.

INDARRALDIA ETA JARDUTEKO EREMUA

Protokolo hau isilbidez luzatuko da, Salerosketaren aurkako Nafarroako Foroak, bere segimendu-lanaren ondorioz, aldaketak egitea erabakitzen badu izan ezik.

HELBURUAK

- Emakume eta neskatoei beren eskubideei, zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazio egokia emateko zer elementu behar diren zehaztea.
- Biktimaren premiak zuzen ebaluatzeko gidalerro batzuk zehaztea, laguntza egokia eman ahal izateko.
- Sexu esplotaziorako salerosketaren biktima izandako emakumeak identifikatu ahal izateko adierazleak zehaztea.
- Salerosketaren biktimei laguntza ematen eskarmentu egiaztatua duten erakundeen parte-hartzea definitzea, bereziki, laguntza integrala ematen eta administrazio publikoek biktimei laguntzeko eta babesa emateko ezarritako programetan parte hartzen dutenena.
- Protokolo honetan inplikaturako erakundeak eta/edo instituzioak modu sistematizatuan koordinatzeko mekanismoak ezartzea.



PRINTZIOPIO GIDARIAK

4

Emakumeak eta neskatoak sexu-esplotaziorako salerostea, delitu ez ezik, biktimen giza eskubideen urraketa larria era bada. Beraz, biktimetikiko jarduketaren funtsezko arrazoia haiei laguntzea eta babestea izan behar du.

Printzipio gidariak ematen diren erantzunetan aplikatu beharreko elementu gisa aurkezten dituzten salerosketaren aurkako estrategia eta jarduketetan, hainbat esparru nazional eta nazioarteko daude. Nafarroako Salerosketa Protokoloak, printzipio orokorrak jakintzat emanda, beronen norabidea, arreta eta koordinazioa gidatu behar dituztenak jasotzen ditu. Hala, honako hauek nabarmenduko ditugu:

GIZA ESKUBIDEEN ETA GENEROAREN IKUSPEGIA

Gizakien sexu esplotaziorako salerosketak neskato eta emakumeei neurritz kanpo eragiten die. Beraz, emakumeek Lurreko kultura, erlijio eta lurralde guztietan sufritzen duten diskriminazio historikoari zor zaion fenomeno bat da. Hortaz, genero-ikuspegi baten bitartez az-

tertu, jorratu eta borrokatu behar da.

INFORMAZIOA

Informazioaren printzipioa oinarriko printzipio bat da, eta esku-hartzearen une eta fase guztietan kontuan hartu behar da, hala, salerosketaren biktima diren emakumeek hartzen dituzten erabaki guztiak ezagutza nahikoa informatuan oinarrituta egon daitezen. Horregatik guztiagatik, informazioa modu errazean eman beharko zaie, beren hizkuntzan eta ulertzeko moduko hizkeran, prozesu penalaren ibilbide osoan. Horrez gain, emakume eta neskatoek behar besteko denbora eta eremu lasai bat izan behar dituzte jasotako informazioa ulertu eta barneratzeko.

Salerosketaren biktimek eman dakizkiekeen zerbitzu eta baliabideei, jaso dezaketen osasun- eta gizarte-laguntzari eta laguntzak –salatzeko erabakia hartzen duten gorabehera– ekar ditzakeen balizko betebeharrei buruzko informazio zehatza izan behar dute.

Biktimei jakitera eman behar zaie suspertzeko eta hausnartzeko gutxieneko aldi bat hartzeko eskubidea dutela; zer eskubide baliatu ditzakeen justizia penalaren arloan –esate baterako, salaketa bat sustatzea edo ez abiaraztea–; prozesuan alderdi aktibo gisa parte har dezaketela eta horretarako abokatu baten laguntza izan, edo laguntza soilik eman; eta kausaren egoerari, arau-hauslearen egoerari edo trafikatzailen aurkako legezko prozeduraren ondoriozko beste edozein alderdiri buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dutela.

Era berean, beraientzat eta beren seme-alabentzat edo senideentzat zer babes-neurri ezar daitezkeen jakinarazi behar zaie –baita egoitza jatorrizko herrialdean badute ere, ildo horretako lankidetzat-hitzarmenik badago– edo laguntzat ezar daitezkeen berri eman, bidezkoa balitz, eta arriskuaren ebaluazioaren berri ere eman behar zaie.

SEGURTASUNA ETA BABESA

Salerosketaren biktimari segurtasuna eta babesa ematea jarduketako funtsezko lehentasuna da. Zehazten diren neurriek prebentzio orokorrak eta horietako bakoitzak eragin ditzakeen arrisku zehatz eta bereziak kontuan hartuko dituzte.

Biktimaren babesean, delituak berak, trafikatzailleek eta inguruneak zer arriskugarritasun eta arrisku sor ditzaketen aztertu eta aintzat hartu behar da.

Era berean, zigor-ibilbideak eragin dezakeen bigarren biktimizazioa saihestu behar da: behin eta berriro galdeketak egitea, horietan hainbat pertsonak parte hartzea edo hainbat instantziatan deklaratu behar izatea, trafikatzailleen aurrean agertzea edo haiek ikustea, etab.

INDIBIDUAZIOA

Pertsona guztien indibiduaioa aitortu behar da eta, aztertzen ari garen kasuan, salerosketarenean, are gehiago, posible bada. Izan ere, ez daude bi pertsona berdin, ezta sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren bi emakume berdin ere, eta kasu guztietan esperientzia subjektiboa gailentzen da, horrek bereizten ditu.

Indibiduaioak egoera pertsonala aintzat hartzea eskatzen du, batik bat, faktore hauek: adina, kultur erreferenteak, sinesmenak, heldutasuna, desgaitasuna, osasun-egoera, haurduntza, komunikatzeko zailtasunak edo beste zernahi inguruabar. Biktimaren premia bereziek ere indibiduaioaren xede izan behar dute.

Indibiduaioarako, identitatearen, bizipenen, emozioen eta ezagutzen alorreko ezaugarriak aurretik esleituz egoera homogeneizatzea eta, ondorioz, esku hartzean berezitasunetan arreta ez jartzea eragiten duten etiketak saihestu behar dira. Esklabotza modernoak, sexu-esplotaziorako salerosketak, molde ugari eta askotarikoak ditu, eta ho-

rrek laguntza ematerakoan emakume bakoitzaren esperientzia bereziari erantzutea exijitzen du.

Emakume bakoitza ez da salerosketaren biktima bat; emakume «hau» da, bakarra eta berezia, egoera objektibo bat eta bizipen subjektibo bat dituen emakume emakume hau. Hala, esku-hartzeak nahitaez integrala eta banan-banakoa izan behar du.

KONFIDENTZIALTASUNA

Salerosketaren biktima den emakumearentzako arretak diziplinarteko eta erakundearteko lana behar du. Hau da, sare-lana behar du, hautematen eta identifikatzen denetik hasita, suspertu ez azkenean gizarteratzen eta kaltea osatzen den arte. Horregatik, hainbat diziplinatako profesionalak eta instituzio publiko/erakunde sozialek parte hartu behar dute prozesu luze eta konplexu horretan. Hala, lanbide bakoitzeko jokabide-kodeei eta Datu Pertsonalak Babesteko Legeari jarraituz, ez da emakumea ezagutzeko aukera eman dezaketen daturik jakinaraziko, jakinarazteak esku-hartzea hobetzea baldin badakar salbu.

ESPEZIALIZAZIOA

Nazioarteko eta nazioko tresna guztiek jasotzen dutenez, une jakin batean salerosketaren biktimak hauteman eta identifikatzeko, laguntzeko eta babesteko prozesuan esku har dezaketen pertsona guztiei beraiazko prestakuntza eman behar zaie nahitaez. Delituok ikertu eta jartzeko ardura duten funtzionarioen kasuan, espezializazio hori bereziki garrantzitsua da; izan ere, biktimak hauteman eta identifikatzeko esparru ohikoena izaten da.

BEREIZKERIARIK EZA

Sexu esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeari arreta emateko prozesuan parte hartzen duten pertsonak delitu baten biktima soiltzat hartuko dute emakumea. Beraz, etnien, adinean, erlijioan, sexu-joeran edo bestelako ezaugarrietan oinarritutako diskriminazioa dakarren jarrera edo iritzi oro kanpo utzi beharko da, eta, gertatuz gero, zehatu egin beharko da.

BIKTIMAREN AUTODETERMINAZIOA

Autodeterminazioak pertsonak bere erabakiak hartzeko duen eskubidea adierazten du. Hau da, egin beharreko ekintzen eta horien zentzua-
ren gainean erabakitzekoa. Autodeterminazioak ez ditu dauden hautabideei eta horietako bakoitzaren alde on eta txarrei buruz infor-
matzeko betebeharretik salbuesten profesionalak.

DIZIPLINARTEKOTASUNA, KOOPERAZIOA ETA KOORDINAZIOA

Pertsonen sexu-esplotaziorako salerosketari aurre egiteko, diziplinarte-
kotasuna eta profesional, instituzio publiko eta erakunde sozialen ar-
teko kooperazioa eta koordinazioa behar dira. Alegia, inplikaturako
instantzia guztien artekoa, esku-hartze eraginkorra izateko eta ber-
matzeko.

Kooperazioa, helburu bera lortzeko elkarrekin lan egitearen ekintza eta
ondorio gisa ulertua, eta koordinazioa, inplikaturako eragileen artean
helburu berera bitarteko, pertsona eta ahaleginak bideratzearen ekintza
eta ondorio gisa ulertua, haien eskumenak eta erantzukizunak muga-
tuta daudenean eraginkorragoak dira. Horregatik, nortzuk, noiz, non,
zergatik eta zertarako jardungo duten jakin behar da.

IRAUNKORTASUNA

Erantzun iraunkorra denboran zehar mantentzen dena eta inguru-
barren eboluziora sormenez egokitu daitekeena da. Beraz, berau, pro-
zesuak eta emaitzak monitorizatu behar dira.



5.1.- SALEROSKETA-EGOERAN DAUDEN EMAKUME ETA NESKATOAK HAUTEMAN ETA IDENTIFIKATZEA

Biktimak hautematea da ekintza abian jartzeko lehen urratsa.

Europar Batasuneko Gizakien Salerosketari buruzko Txostenak (Europako Batzordeak egina) adierazten duenez, Europan, salerosketaren xedea prostituzioa da eta biktima gehienak emakumeak dira. Txostenek azaltzen dutenaren arabera, kopuru oso handia da, baina biktima gisa identifikatu eta zor zaien babes-estatutua lortzen dutenak oso gutxi dira. Horretarako arrazoen artean, trafikatzailerek erabilitako bitartekoak eta emakumeen gain duten kontrolak haiengana iristeko aukera asko zailtzen dutela aipatzen dute. Baina esku-hartze prozesuak hautemateko oztopo direla ere adierazten dute. Hautematea eta identifikazioa desberdintzen ditugu, bi prozesu desberdin direlakoan.

- **hautematea: identifikatu aurretiko egoera (biktima potentzialak)**
- **identifikazioa: pertsona salerosketaren biktima dela egiaztatzea**

RAEren hiztegiaren 22. edizioaren arabera, hautematea hautematearen ekintza eta ondorioa da, eta esanahi hau du: «Agerikoa ez zen zer-baiten existentziaz ohartzea». Ondorioz, agerikoa ez den egoera bat zantzu bidez (aztarnak edo arrastoak) hauteman behar dute beren jardunean prostituzioan aritzen diren emakumeekin harremana duten profesionalak.

Nazioarteko erakundeek zenbait zantzu sistematizatu dituzte. Zantzu horiek dagokion pertsona salerosketaren biktima potentziala izatearen ohartarazpentzat hartu behar dira. Jokabide-maila desberdinetan islatzen dira. Laburbiltzeko, honela sistematizaten ditugu: emozionalak (adib.: beldurra, mesfidantza, estutasuna...); fisikoak (adib.: zauriak, urradurak, ebakiak..., atxikita egotea, isolatuta, zelata, arreta medikoa eskuratzeko mugak...); materialak (adib.: dokumentaziorik eza, arroparik eza, dokumentazioa, dirua, zorra edo zerga ekonomik ez izatea...). Horiek sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izan litezkeen emakumeei eragiten diete.

Adierazle bat edo gehiago izateak ez du salerosketa-egoera ziurtatzen edo baztertzeko, baina aztertu behar dira, salerosketaren biktima potentzial baten aurrean egon gaitzkeelako.

Protokolo honetan, nazioarteko eta nazioko erakundeek biktimak identifikatzeko prestatu dituzten irizpideak gida moduan sartu dira; horietako batzuk eranskinean daude.

Salerosketaren biktima posibleak hainbat eremutan hauteman daitezke: osasun-sisteman, gizarte-zerbitzuetan, laneko ikuskapenak egiten direnean, mugan, atzeritarrak barneratzeko zentroetan eta askotariko egoeretan. Baina ohikoena eta arruntena polizia-kidegoen bitartez hautematea da, dela polizia-operatiboan edo ikerketen harira dela biktimek berek salatuta.

Giza Salerosketaren Biktimak Babesteko Esparru Protokoloak zehazten duenez, «giza salerosketako delitu bat ikertzeko ardura edo immigrazioa kontrolatzeko ardura duten segurtasun-indar eta -kidegoek usuzteko biktima baten existentziaren berri izatean, Fiskaltzari

jakinaraziko diote, horrek ondoren atestatu bat formalizatzea eragotzi gabe». Fiskaltzari berehala jakinarazi behar zaio ustezko biktima bat hauteman dela eta, ahal denean, bitarteko elektronikoen bidez.

Hala ere, egunerokoa prostituzio-egoeran dauden emakumeei arreta ematen diharduten GKEek biktima posibleekin harremanetan jartzeko egoera abantailatsuan daude, eta aldi berean, hainbatetan, laguntza-baliabideez hornitzen dituzte. Horrek ekartzen dien gertutasunaren eta hurbiltasunaren ondorioz, biktimei zer eskubide izan ditzaketen jakinarazi diezaiekete, modu berezitan eta beraiek ezagututa, baita horiek eskuratzeko atea ireki eta babesa eman ere, salerosketa-delituen eta salerosleen aurkako jazarpenean lagundu nahi badute.

Era berean, beste zerbitzu publiko eta are pribatu batzuek ere hauteman ditzakete sexu-esplotaziorako giza salerosketaren biktima izan daitezkeen biktimak. Kasu horretan, gertaerak ikertzeko eskumena duen polizia-kidegoari (Foruzaingoa, Polizia Nazionala edo Guardia Zibila) biktimaren inguruabarrak edo esplotazioa zer agertokitan gertatzen ari litekeen jakinaraziko zaizkio, unitate horrek salatutako egoeran esku hartu dezan.

Alabaina, biktima izatearen aitorten formala eskuratzeko identifikazio-prozesuan polizia-indarrek parte hartu behar dute –dela Nafarroako Foruzaingoa, direla Nafarroako Foru Lurraldean eskumenak dituzten Estatuko segurtasuneko indar eta kidegoak–, haiei baitagokie gertatzen diren delituak ikertzea, biktimak behar dituen babes-eta segurtasun-neurri bereziak hartzea eta dagokion txostena prestatzea, legez kanpoko egoeran dauden biktima atzerritarren kasuan, 4/2000 Lege Organikoaren 59. bis artikuluan eta erregelamendu-arauetan aipatutako baimenak eskatzeko.

Hala ere, Arartekoak honako hau gomendatzen du 2012ko irailean aurkeztutako GIZA SALEROSKETA ESPAINIAN: BIKTIMA IKUSEZINAK txostenaren segimenduan: «Erakunde horiek parte hartzea oinarrizko elementu bat da prozeduraren ikuspegiaren ardatza giza saleroske-

taren biktimen eskubide eta premiak direla bermatzeko». Instituzio horren ustez, biktima kopuru txikia identifikatzea eta salerosketaren biktima potentzialak eta biktima izateko arriskuan dauden pertsonak identifikatzeko zailtasunak gainditu ahal izango liriateke, erakunde horiek identifikazio-prozeduran txertatzeko formula egokia aurkituko balitz.

Oinarrizkoena biktimak hautematea eta identifikatzea bada ere, ezin da ahaztu horretarako zailtasunak daudela. Zehazki, zerbitzuei dagokienez, Clawsonek eta beste batzuek (2009) oztopo hauek izendatu eta aipatu dituzte:

OZTOPOAK

Biktimei dagokienez:

- Beren buruak salerosketaren biktima gisa identifikatzeko zailtasuna
- Zerbitzuak ez ezagutzea
- Errepresaliei beldurra
- Legeari/atxilotzeari/deportatzeari beldurra
- Konfiantza falta
- Estigma
- Trauma-osteko estresaren sindromea
- Kultura- eta hizkuntza-oztopoak

OZTOPOAK

Zerbitzuei dagokienez:

- Salerosketa ezkutukoa izateak biktimak hautematea zailtzen du
- Prestakuntza falta
- Baliabide egokien falta
- Kultura- eta hizkuntza-oztopoak
- Zerbitzuen koordinazio ez-eraginkorra
- Segurtasuna

5.2.-INFORMAZIO-PROZESUA

Salerosketaren biktima diren edo, behatutako ebidentzia edo zantzuak direla-eta, ustez salerosketaren biktima diren emakumeei baldintzarik gabe dauzkaten eskubideen berri eman behar zaie, beharrezkoa balitz itzulpengintzako eta kulturarteko bitartekaritzako zerbitzuen laguntzaz, salatze eta/edo delituen ikerketan polizia-agintaritzei laguntzeko erabakia hartzen duten edo ez kontuan hartu gabe. Zehazki, gutxienez, segurtasun- eta babes-baldintzetan **fisikoki, psikologikoki eta sozialki suspertzeko laguntza jasotzeko eskubidea** dutela jakinaraziko zaie. Horren barruan, honako hauek sartzen dira:

- **Ostatu segurua** biktimarentzat eta haren seme-alaba adingabeentzat, bizirauteko eta seme-alabak eskolatu ahal izateko.
 - **Laguntza medikoa eskuratzeko aukera.**
 - **Laguntza psikologikoa eskuratzeko aukera.**
 - **Laguntza juridikoa** eta legeak aitortzen dizkion eskubideen gainekoa.
 - **Kulturarteko bitartekari** bat izatekoa (itzulpengintzako eta kultur bitartekaritzako zereginak beteko ditu).
- Espanian egoitza izateko baimenik ez duten biktima atzerritarrak bada, eskubide hauek izango dituzte:
- Gutxienez **90 eguneko** hausnartzeko aldi bat izatekoa, epe horretan, behar besteko autonomia eta informazioa izanda, agintariei delitua ikertzen lagundu nahi dieten erabaki ahal izateko. Aldi horretan, aldi baterako egonaldi-baimena emango zaie, eta, halakorik balego, zehapen-espeditate administratiboa edo erabakitako kaleratzea edo itzularaztearen gauzapena etengo da.

Salaketarik balego edo ikerkuntzan laguntzeko nahia adieraziko balute, honako hauek ere jakinaraziko zaizkie:

- Lekukoak babesteko zer neurri har daitezkeen zigor-prozesuaren ere-

muan.

- Zigor-prozesuaren parte izateko eskubidea eta doako abokatua eta legezko ordezkari izatekoa, ez baditu horretarako baliabide ekonomikoak, eta ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea, arau-hausleak/ek kaudimenik ez badu(te) salbu.
 - Sexu-askatasunaren aurkako indarkeriazko egintza baten biktima ere baldin bada zer eskubide dituen, edo, trafikatzailer bere bikotekidea edo bikotekide ohia izanez gero, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzko Lege Organikoaren ondorioz zein dituen.
 - Delitua ikertzeko eskumena duen polizia-kidegoak zer babes- eta segurtasun-plan zehaztu duen harentzat, bere egoeraren eta arriskuaren arabera, baita zer segurtasun-neurri izan daitezkeen bidezko ere haren seme-alaba adingabe edo desgaituentzat, senideentzat, lagunentzat edo biktimarekin lotura izanik babesa behar duten pertsonentzat.
 - Egoitza-baimenik gabeko emakume atzerritarrak badira, erantzukizun administratiboren bat izanez gero salbuetsita egongo direla jakinaraziko zaie, baita egoitza- eta lan-baimena lortzeko aukera edo itzulera lagundurako aukera dutela ere.
 - Arestian aipatutako laguntza-baliabideak zein diren.
- Oinarrizko informazioa idatziz eman behar da, biktimaren jatorrizko hizkuntzan.

5.3.- BIKTIMEN BEHARRIZANAK

Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatok askotariko beharrianak dituzte. Clawson-ek eta Dutch-ek (2007) adierazten duten moduan, «zer ez dute behar pertsona horiek?».

Zenbait ikerketen arabera, behar horiek denborarekin lotuta daude.

Hala, larrialdiko, epe laburreko eta epe luzeko gisa definitzen dituzte (Caliber Associates, 2007; Clawson, Samll, Go&Myles, 2004).

Epe laburreko eta luzeko beharizanen arteko aldeari dagokionez, nabarmendu beharreko alderdi garrantzitsu bat dago: indibiduaioa aintzat hartuta, biktima bakoitzak bere denbora behar du, eta, sarritan, ezin da aurreikusi zenbatekoa izango den. Halaber, Zimmermann-ek eta Borland-ek (2009) eta Clawsonek y Dutchek (2008) azaltzen dutenez, askotan, esku hartzean zehar beharizanok aldatu egiten dira, biktimen inguruabarrengatik, baita errehabilitazio-etapetan ere.

Hori horrela, hauek dira beharizan orokorrenak, denboraren arabera bereizita:

Larrialdikoak:

- Ostatu segurua
- Mantenua (janaria, arropa, higiene pertsonala)
 - Beren senideekin komunikatzea
 - Itzulpena (tokiko hizkuntza ezagutzen eta menderatzen ez duten emakume atzeritarren kasuan)
 - Laguntza emozionala
 - Lege-laguntza eta -ordezkaritza
 - Osasun- eta gizarte-laguntza
- Epe ertainera eta luzera:
 - Ostatura (aldi baterakoa edo iraunkorra)
 - Lehe-laguntza (defentsa eta ordezkaritza)
 - Itzulpena eta kultura-bitartekotza
 - Laguntza emozionala
 - Osasun-laguntza

- Osasun mentaleko arreta
- Garraioa
- Hezkuntza
- Laguntza/kudeaketa ekonomikoa
- Enplegurako prestakuntza
- Laneratzeko banakako ibilbidea
- Familia bateratzea/aberriratzea

Beharizan horiek, larrialdikoak izan ezik, lau kategoriatan bil daitezke: osasun fisiko eta psikologikoko beharizanak, ostatu baten eta mantenuaren beharizanak, lege-laguntzako beharizanak eta bizitzarako trebetasunen beharizanak.

Azkenik, prozesu osoan eta fase guztietan, harik eta guztiz suspertu arte, erreferentziako pertsona baten laguntzaren premia ere aipatu behar da.

5. 4.- LAGUNTZA INTEGRALA

Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume guztiak laguntza eta babesa jasotzeko eskubidea dute.

Laguntzak (zerbitzuak eta profesionalak) espezializatua, malgua, dinamikoa eta integrala izan behar du:

1. Espezializatua: prostituziorako salerosketaren kausak eta eratorritako ondorioak (jadanik ikertuak eta hedatuak) direla-eta, profesional eta zerbitzu espezializatuak behar dira. Ahal den neurrian, esku hartzen duten profesionalak emakumeak izatea komeni da.

2. Malgua: indibiduaioa eta egoeraren bizipen subjektiboa errespetatzeko.

3. Dinamikoa: salerosketa aldakorra denez, arretak suertatzen diren errealitateei erantzuteko prestatuta egon behar du.

4. Integrala: eraginpeko elementu guztiei erantzun behar zaie, baina modu sekuentzialean.


Salerosketa egoeran dauden emakumeei eta hurrei laguntzeko lehenengo pausa da behar duten hasierako laguntza larrialdikoa ematea; laguntza hori 112 larrialdiko telefonoaren bidez kudeatuko da. Biktimari ostatu seguru eta berehalakoa emanda, biktimak trafikatzailleengandik eta proxenetengandik urrun gelditu behar du. Ostatura hasierako harrerakoa izango da; hitzartutako plazak edo larrialdiko arretarako erakunde publikoetako plazak izan daitezke.

Emakumea, behin lehenengo orduak pasatuta, eta lasai eta seguru dagoenean, harremanetan jarriko da salerosketaren biktimei laguntzeko sarearen dispositiboekin. Dispositibo horiek hartuko dute beren gain kasua, eta jarduketa integralerako plana jarriko dute abian, hala ageri baita protokolo honen algoritmoan, emakumeak identifikatua izan nahi duela adierazten duen kasurako. [↑sakatu hemen](#)

Arriskua ebaluatzea (polizia-kidegoek egiten dute): salerosketa-sareak edo proxenetek biktimarengan eragiteko duten arriskuan jartzen da arreta –horrek muturreko babes-neurriak hartzea eskatzen du– eta, horrenbestez, baita ostatu emango zaion gunean ere. Gune hori Nafarroako lurralde geografikoaren barruan egon daiteke (arrisku txikia edo hutsala) edo beste edozein autonomia-erkidegotan (arrisku handia).

Arriskuak ebaluatzean, polizia-kidegoek biktima Nafarroako Foru Komunitatetik kanpora eramane behar dela ondorioztatzen badute, NBIri jakinaraziko zaio, tramita dezan.

EMAKUME BAT SALEROSKETAREN BIKTIMA DELA SUSMATZEN DENE- RAKO JARDUNBIDEA



EMAKUME BAT SALEROSKETAREN BIKTIMA DELA IDENTIFIKATZEN DENERAKO JARDUKETA



*Poliziak akonpainamendua beharrezkoa dela jotzen badu identifikatzeko elkarrizketan, akonpainamendu hori emango da larrialdiko laguntza psikologikoko zerbitzuaren bidez, 112ra deituta

B

IKTIMEN ARRETARAKO KOORDINAZIOA

6 Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren ardura izango da protokoloa koordinatzea eta ebaluatzea, eta protokoloak ongi funtzionatzen duela begiratuko du. Horretarako, besteak beste, gerta litezkeen gora-beherak jaso eta erregistratuko ditu, konpontzeko helburuz.

Erakunde horren ardura da, era berean, salerosketaren biktimen gainerako informazioa erregistratzea eta aztertzea; informazio hori parte hartzen duten entitateek eta erakundeek emango diote Nafarroako Berdintasunerako Institutuari.

Kasuen koordinazioaren ardura, bestalde, genero indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabide espezializatuena izango da. Iruñean, laguntza hori **Emakumeari Laguntzeko Udal Zerbitzuak**, emango du, eta Nafarroako gainerako lekuetan, berriz, genero indarkeriaren biktimen arretarako taldeek (**GIAT**). **Genero indarkeriaren biktimen** arretarako taldeak lau dira, eta gizarte zerbitzuen eskualdeen arabera ematen dute laguntza: Iruñerria, Nafarroaren iparraldea, Tafalla, Lizarra eta Tuteria.

Kasuen koordinazioak helburu du salerosketaren biktima diren emakumeek modua izatea beren beharretara egokitutako laguntza eskuratzeko, eta laguntza hori koordinatua izan dadila, halako moduz non emakumeak ez dezan ibili behar batetik bestera, horrek bigarren biktimizazio bat ekartzen baitu.

Kasuen koordinazioak honakoak dakartza, besteak beste: jarduketa plan indibidualizatu bat egitea, emakumeari behar dituen baliabideak eskura jartzea beharrak sortu ahala, eta suspertze prozesu guztiaren jarraipena. Koordinazioaren ardura duenak, horretarako, jarduketa plan integrarean parte hartzen duten gainerako eragileen laguntza izango du.

ERAKUNDE BAKOITZAK PROZESUAN DITUEN FUNTZIOAK



NBI: PROTOKOLOAREN KOORDINAZIOA/DATUEN MONITORIZAZIOA/EBALUAZIOA



PROZESUAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILEAK



ERANSKINA 1. SALEROSKETAREN
ADIERAZLEAK



ILO (International Labour Office) (2009ko iraila)

EBko estatu kideetako 27 aditurekin (poliziak, gobernuak, GKEak, akademiak...) DELPHI metodoa erabiliz egindako ikerketan, esku hartzeko lau adierazle-multzo lortu dira. Multzo bakoitzak salerosketaren definizioaren (Palermoko Protokoloa, 2000) dimentsioei (sei) erantzuteko garrantzitsuak diren adierazleen zerrenda egituratu bat dauka:

- 1. Iruurrez** (edo errekrutatzean, lekualdatzean eta garraioan iruzur egitea): 10 adierazle.
- 2. Bortxaz errekrutatzea** (edo errekrutatzean, lekualdatzean eta garraioan bortxa erabiltzea): 10 adierazle.
- 3. Kalteberatasunaz abusatuz errekrutatzea:** 16 adierazle.
- 4. Esplotazio-baldintzak:** 9 adierazle.
- 5. Helmugan behartzea:** 15 adierazle.
- 6. Helmugan kalteberatasunaz abusatzea:** 7 adierazle.

Adierazle bat baiezkotzat hartzeko, gutxienez honako hauek bildu behar ditu:

- Bi adierazle sendo, edo.
- Adierazle sendo bat eta adierazle ertain edo ahul bat, edo.
- Hiru adierazle ertain, edo.
- Bi adierazle ertain eta adierazle ahul bat.

Helduen sexu-esplotaziorako salerosketaren adierazleak:

1. Iruurrezko errekrutamenduaren adierazleak

SENDOA

- Lan motari edo kokaguneari buruzko engainua

ERTAINA

- Prostituzioaren baldintzei buruzko engainua
- Lan-kontratuaren edukiari edo legaltasunari buruzko engainua
- Familia bateratzeari buruzko engainua
- Etxebizitza- eta bizi-baldintzei buruzko engainua
- Legezko dokumentazioari edo legezko migrazio-estatusa lortzeari buruzko engainua
- Bidaiari eta errekrutatze-baldintzei buruzko engainua
- Soldatari edo irabaziei buruzko engainua
- Ezkontza- edo adopzio-promesen bidezko engainua

AHULA

- Hezkuntza-aukerei buruzko engainua

2. Bortxazko errekrutamenduaren adierazleak**SENDOA**

- Bahiketa, bortxazko ezkontza, bortxazko adopzioa edo biktima saltzea
- Esklabotza
- Biktimari indarkeria-mehatxuak egitea
- Biktimarenganako indarkeria

ERTAINA

- Dokumentuak konfiskatzea
- Isolamendua, konfinamendua edo zaintzapean izatea
- Agintarien aurrean salatzeke mehatxua
- Familiari, komunitateari edo gizarteari jakinarazteko mehatxua
- Familiaren aurkako indarkeria (mehatxua edo egiazkoa)
- Dirua atxikitzea

3. Kalteberatasunaz abusatuz errekrutzearen adierazleak**ERTAINA**

- Familia-egoera zailaz abusatzea
- Legez kanpoko estatusaz abusatzea
- Hezkuntza faltaz abusatzea (hizkuntza)
- Informazio faltaz abusatzea

- Iraganeko zailtasunak
- Bidaia antolatzeke zailtasunak
- Arrazoi ekonomikoak
- Legeari eta agintaritzen jarrerei buruzko informazio faltsua
- Migrazioari buruzko informazio faltsua
- Familiaren egoera
- Testuinguru orokorra
- Egoera pertsonala
- Mendekotasun emozional eta psikologikoa
- Agintariekiko harremana/lege-estatusa

AHULA

- Kulturaz/sinesmen erlijiosoez abusatzea

4. Esplotazioaren adierazleak**ERTAINA**

- Bizi-baldintza txarrak
- Jarduera arriskutsua
- Ordainik eza edo ordain txikia
- Babes sozialik eza
- Jardueran baldintza oso txarrak izatea
- Ordainari buruzko iruzurra

5. Helmugako bortxaren adierazleak

SENDOA

- Dokumentuak konfiskatzea
- Esklabotza-zorra
- Bortxazko jarduerak edo bezeroak
- Isolamendua, konfinamendua edo zaintzapean izatea
- Biktimari indarkeria-mehatxuak egitea
- Biktimaren aurka indarkeria baliatzea

ERTAINA

- Legez kanpoko jarduerak/kriminalak egitera behartzea
- Kidekoen aurka jardutera behartzea
- Agintariei, familiei eta abarri gezurra esatera behartzea
- Agintarien aurrean salatzeko mehatxua
- Jardueran baldintza okerragoak ezartzeko mehatxua
- Familiari, komunitateari edo gizarteari jakinarazteko mehatxua
- Familiaren aurkako indarkeria (mehatxua edo egiazkoa)
- Dirua atxikitzea

6. Helmugan kalteberatasunaz abusatzearen adierazleak

ERTAINA

- Esplotatzaileekiko mendekotasuna
- Gune ezezagun batean bizitzeko zailtasuna

- Arrazoi ekonomikoak
- Familiaren egoera
- Ezaugarri pertsonalak
- Agintariekiko harremana/lege-estatusa

AHULA

- Iraganeko zailtasunak

Salerosketaren adierazleak (UNODC)

Salerosketa-egoera guztietan ez dira adierazle guztiak agertzen. Horietako batzuk agertzeak edo ez agertzeak ez du salerosketa gertatu dela baieztatzen, ezta ukatzen ere.

Faktore orokorrak

Baliteke trafikatuak izan diren pertsonak:

- Beren gogoz kontra lan egin behar dutela pentsatzea.
- Sexu-esplotazioko ingurunea uzteko gai ez izatea.
- Beren mugimenduak kontrolatuak izaten ari diren zantzuak agertzea.
- Ihes egiterik ez dutela sentitzea.
- Beldurra edo estutasuna adieraztea.
- Indarkeriaren mende edo haienganako nahiz haien familien eta bikotekideen aurkako indarkeria-mehatxuen mende egotea.
- Eraso baten ondoriozkoak diruditen lesioak izatea.
- Lan jakin batzuetan ohikoak diren lesioak edo ezgaitasunak izatea.

- Kontrol-neurriak aplikatzearen ondoriozkoak diruditen lesioak izatea.
- Agintariekiko mesfidantza izendatzea.
- Beren migrazio-estatusa jakinarazteari beldur izatea.
- Pasaportetik edo beste bidaia- edo nortasun-agiririk ez izatea, beste batzuen esku daudelako.
- Identitate faltsua edo bidaia-dokumentu faltsuak izatea.
- Tokiko hizkuntza ez jakitea.
- Beren bizilekuaren edo esplotazio-gunearen helbidea ez jakitea.
- Zuzenean galdetzen zaienean beste batzuei beren ordezt hitz egiten uztea.
- Beste batzuen agindupean baleude bezala jardutea.
- Baldintza jakin batzuen mende jardutera behartuta egotea.
- Zigorren bitartez diziplinatuta egotea.
- Lan-baldintzak negoziatzeko gauza ez izatea.
- Ordain txikia jasotzea edo batere ez.
- Beren irabaziak eskuratzerik ez izatea.
- Prostituzioan jardutea, ordu askoan eta denboraldi luzez.
- Egun librerik ez izatea.
- Gune txiro edo eskasetan bizitzea.
- Osasun-arreta eskuratzerik ez izatea.
- Harreman sozial mugatuak izatea edo batere ez.
- Familiarekin edo laneko girotik kanpoko jendearekin harreman mugatua izatea.
- Besteekin libreki komunikatzeko gai ez izatea.
- Zorrek elkartuta dauden pertzepzioa izatea.
- Mendekotasun-egoera batean egotea.
- Salerosketa-iturri gisa ezaguna den gune batetik etortzea.
- Erraztaileek ordaindutako bidaia-poltsa batekin iritsi izana jatorriko herrialdetik, eta haiei lanaren bitartez edo helmugan zerbitzuak emanez itzuli behar izatea.
- Promesa faltsuetan oinarrituta jardun izana.

Sexu-esplotazioa


- Edozein adinatarikoa izan daiteke; kokalekuaren eta merkatuaren arabera aldatuko da.
- Burdel batetik gertuko beste batera aldatzea edo jarduera hainbat kokalekutan gauzatzea.
- Etengabe eskolatuta egotea.
- Ustiatzaileen «jabetzakoak» direla adierazten duten tatuajeak edo beste marka batzuk izatea.
- Jarduera egun librerik gabe gauzatzea edo edozein ordutan jarduteko prest egon behar izatea.
- Prostituzioan jardutera behartzen dituzten gune berean lo egitea.
- Taldean bizitzea edo bidaiatzea, zenbaitetan, hizkuntza bera hitz egiten ez duten beste emakume batzuekin.
- Arropa gutxi izatea.
- Gehienbat prostituziorako erabilitako arropa izatea.
- Sexuarekin lotutako hitzak soilik jakitea tokiko hizkuntzan edo bezero taldearen hizkuntzan.
- Bere jabetzako esku-dirurik ez izatea.
- Nortasun-agiririk ez izatea.

Egoera hauek ere adieraz lezakete pertsona horiek sexu-esplotaziorako salerosgai izan direla:

- Ustezko biktimek babesik gabeko sexu-harremanak eta/edo indarkeriazkoak izan dituzten zantzuak egotea.
- Ustezko biktimek babesik gabeko sexu-harremanak eta/edo indarkeriazkoak izateari uko egiterik ez izatearen zantzuak egotea.
- Pertsona bat erositik eta saldua izan den zantzuak egotea.
- Zenbait emakume-talde beste pertsona batzuen kontrolpean izatearen zantzuak egotea.
- Jatorri etniko edo herritartasun jakin bateko emakumeen zer-

bitzuak eskaintzen dituzten prostituzio-etxeen edo tankerako guneen iragarkiak argitaratu izana.

- Jatorri etniko edo herritartasun jakin bateko bezeroei arreta ematea.
- Bezeroek esandakoaren arabera emakumeek irribarrerik ez egitea edo ez kooperatzea.



- Nazio Batuak. Palermoko Protokoloa: Pertsonen Salerosketa, Bereziki Emakume eta Haurrena, Prebenitu, Zigortu eta Zehatzeko Protokoloa. 2000
http://www.ohchr.org/Documents/ProfessionalInterest/ProtocolTraffickingInPersons_sp.pdf
 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Nazio Batuak: Pertsonen Salerosketaren aurka Borrokatzeko Nazio Batuen Munduko Ekintza Plana (64/293 Ebazpena). 2010
https://www.iom.int/jahia/webdav/shared/shared/mainsite/policy_and_research/un/64/a-res-64-293_S.pdf
 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Gizakien Salerosketaren aurkako Nazioarteko Ituna (Varsoviako Ituna).
http://www.accem.es/ficheros/documentos/pdf_trata/Convenio_Consejo_de_Europa.pdf
 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Gizakien Salerosketa Deuseztatzeko Europar Batasunaren Estrategia (2012-2016)
<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52012DC0286&from=ES>
 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Giza Salerosketaren Biktimak Babesteko Esparru Protokoloa. 2011
http://www.policia.es/trata/pdf/protocolo_marco_trata.pdf
 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- 5/2010 Lege Organikoa, Zigor Kodea aldatzen duena
http://noticias.juridicas.com/base_datos/Penal/lo5-2010.html
 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa
<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2000-544> (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuak, 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 59 bis artikulua erregelamenduzko garapena jasotzen du, eta hausnarketako, informazioko, deribazioko eta, hala badagokio, aldi baterako egoitza-baimena emateko aldiei buruzko auziak erregulatzen ditu, egoitza-baimenik ez duten eta itzulera lagundurako eskubidea izateko baldintzak betetzen ez dituzten giza salerosketaren biktimentzat.
<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-7703> (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)

- 3/2013 Errege Lege Dekretua, otsailaren 22koa, justizia-administrazioaren eremuan tasen araubidea eta doako laguntza juridikoaren sistema aldatzen dituen.
- https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2013-2029 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena..
- https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-4606 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haur eta nerabeen babes-sistema aldatzekoa.
- https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8222 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- 26/2015 Lege Organikoa, uztailaren 28koa, haur eta nerabeen babes-sistema aldatzekoa.
- https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-8470 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Emakumeak eta Neskatoak Sexu Esplotaziorako Salerosketaen aurka Borrokatzeko 2015-2018rako Plan Integrala
- http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/planActuacion/planContraExplotacionSexual/docs/Plan_Integral_Trata_18_Septiembre2015_2018.pdf (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean Arreta eta Prebentzioa Eraginkortasunez Koordinatzeko Erakundearteko II. Akordioa.
- <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/8346E44F-1C60-4850-AAC8-7934034AB5C6/173644/Parte1Acuerdo1.pdf> (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa. 2015.
- <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=35670> (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Delituak jakinarazteko betebeharra:
- http://noticias.juridicas.com/base_datos/Penal/lecr.l2t1.html (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Babestutako lekukoa: Prozesu penaleko arauketa eta tratamendua.
- <http://margaritasantanaabogados.com/testigo-protegido-regulacion-y-tratamiento-en-el-proceso-penal/> (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- 19/1994 Lege Organikoa, abenduaren 23koa, auzi Kriminaletan lekukoak eta perituak babesteko.
- <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1994-28510> (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Drogaren eta Delituaren aurkako Nazio Batuen Bulegoa (UNODC). Adierazleak
- https://www.unodc.org/documents/human-trafficking/HT_indicators_S_LOWRES.pdf (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Hautematea:
- <http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/otrasFormas/trata/detectarla/pdf/ManualDirectricesDeteccionTSH.pdf>. 2013 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)

- <http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/otrasFormas/trata/detectarla/pdf/HerramientaDeteccionTSHexplotacionSexual.pdf>. 2013 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Solaskide soziala Polizia/herritarren erakundeak
http://www.interior.gob.es/prensa/noticias/-/asset_publisher/GHU8Ap6ztgsg/content/id/6071657 (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Sexu Esplotaziorako Salerosketaren Biktimei Laguntzeko Baliabideen Gida. 2015eko MARTXOA.
<http://www.msssi.gob.es/en/ssi/violenciaGenero/tratadeMujeres/ProtocoloMarco/DOC/RESUMENGUIAWEBMAPASMARZO2015.pdf> (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Salerosketaren biktimak babestuz.
http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/violenciaEnCifras/estudios/investigaciones/2015/pdf/Apoyando_Victimas_Trata.pdf (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Salerosketa-, prostituzio- eta bestelako sexu-esplotazio-egoeran edo -arriskuan dauden biktimei babes integrala emateko esparru-programa. Andaluziako Junta, 2012.
http://www.mimp.gob.pe/files/programas_nacionales/pncvfs/Proyecto_Apoyo_Asociacion_Juristas/Programa_Marco_Atencion_Integral_Victimas_Trata_y_Exploatacion_sexual_Ayuntamiento_Sevilla.pdf
(Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Sexu-esplotaziorako salerosketaren aurrean esku hartzeko gidaliburua. Andaluziako Junta, 2014
http://www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/MANUAL_INTERVENCION_TRATA.pdf (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Koordinazio-protokoloa: sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimei laguntzekoa. Eusko Jaurlaritza.
http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/es_def/adjuntos/gmes.protocolo.coordinacion.victimas.situacion.regular.cas.pdf (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Espainiako Amnistia Internazionala (2009): Indarkeriarik gabeko bizitza, emakume eta neskatuentzat. Genero-indarkeriaren beste biktimak: sexu-indarkeria eta gizakien salerosketa.
https://www.es.amnesty.org/uploads/media/Vida_sin_violencia_para_web.pdf (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- APRAMP (Prostituitutako Emakumearen Prebentzio, Gizarteratze eta Arretarako Elkartea).
http://www.accem.es/ficheros/documentos/pdf_publicaciones/guia_ident_trata-2009.pdf (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzko esparru-protokoloa (BAA).
<http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/otrasFormas/trata/normativaProtocolo/marco/docs/ProtocoloMena.pdf> (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Galiziako Xunta. Sexu-esplotaziorako salerosketa prebenitzeko, ikertzeko eta horren biktima izan diren emakumeak tratatzeko neurriak hartzeari buruzko jarduera instituzionalerako protokoloa.
<http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/otrasFormas/trata/normativaProtocolo/marco/docs/ProtocoloGalicia.pdf> (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Extremadurako Junta. Sexu-esplotaziorako giza salerosketaren aurkako.
<http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/otrasFormas/trata/normativaProtocolo/marco/docs/ProtocoloExtremadura.pdf> (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Katalunia: Katalunian giza salerosketaren biktima izandakoak babesteko Protokoloa
http://premsa.gencat.cat/pres_fsvp/docs/2013/10/17/11/42/02a5c5e2-dd84-4af4-b6db-29bb016553e5.pdf (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)
- Madril: Sexu-esplotaziorako giza salerosketaren aurkako Madrilgo 2016-2021 aldirako estrategia.
http://www.madrid.org/cs/Satellite?c=CM_InfPractica_FA&cid=1354602449041&language=es&pagename=ComunidadMadrid%2FEstructura (Esteka data honetan kontsultatu da: 2016/12/07)

KOORDINATZEKO ETA JARDUTEKO PROTOKOLOA



sexu-esplotaziorako
salerosketaren biktima
diren **Emakume eta**
Neskatoen kasuan

